

Juan Mari Azkue:

Nola sortu zen Aristerrazuko erromeria?

"Lehen, duela 60-80 urte, toki askotan izaten ziren erromeria. Baserri multzoak ziren tokietan, gazteak elkartu eta erromeria egiten zuten. Beste guztiak galdu egin dira, eta Aristerrazukoak jarraitu egiten du. (...)Horretan zerikusi handia izan du auzoko gazteriak. Gazteak ginela hartu genuen erromeriak antolatzeke konpromisoa, eta aurretik gure aitak-eta aritu ziren horretan. Elkarte txiki bat sortu genuen duela urte batzuk, eta hiru lagunek osatzen dugu. Geu aritzen gara antolakuntzan, eta jendeak ondo erantzuten du, oraingoz."

Karkara aldizkaria. 2016-02-02

Ramon Azpitarte Imuntzo:

Zer aldatu da aurreneko diskotik hona? Musikari hobeak zarete?

"Urteekin esperientzia hartzen da, eta jotzeko modua ere aldatuz doa. Orain, abestien erritmoa lasaia da, erosoago sentitzen garelako. Jakituria eta esperientziak ematen dizu halako aberastasan bat, eta hori antzeman egiten da. Orain gainera desberdin jotzen dut. Beste garai bat zen hasierakoa. Digitazioari eta abiadurari garrantzia handiagoa ematen zitzaion. Denborari esker jantzi ditudan beste balio batzuk ditut orain, lehen ez nituenak."

Urola kostako hitza. 2016-02-19

Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta:

Zer behar da trikitilari bikote bat ondo koordinatzeko?

"Elkarrekin ongi konpontzea eta konfiantza edukitzea. Bai, erlazio ona izatea. Hori oinarri modura izanda, errazagoa da ongi moldatzea. Ezagun batekin beti gusturago jotzen duzu. (...) jotzerakoan nahiago ditugu erromeriak. Presio gutxiago dago, eta gehiago disfrutatzeke aukera dugu. Txapelketetan lau edo bost epaile dituzu zuri begira, akatsen bila. Txapelketak, hala ere, ikasteko balio du. Eta lagunak egiteke ere bai, beste trikitilari batzuk ezagutzeko."

Goierriko hitza. 2015-12-18

Gure Esku Dago-ren herri galdeketerako kantua

Ekainaren 19ko Gure Esku Dago-ren herri galdeketerako "gurea da erabakia" sintonia edo kantua konposatu dute Joxe Arizkorreta Legazpiarra eta Xabi Arakama Zegamarrak. Xaiko taldeko musikariek martxoaren hasieran grabatu zuten eta martxoaren erdirako egongo da entzungai.

Trikitixa eguna Beasainen

Beasainen ospatuko da 2016ko Trikitixa Eguna Apirilaren 23an. Egun osoko ekitaldia izango da, 11:00etan elkartu eta hamaiketako; 11:30tan kalejira herrian zehar taldeka, 14:00tan bazkaria eta 17:00etan erromeria.

Iñigo eta biok, GOZATEGI proiektu berria

Asier Gozategi eta Iñigo Goikoe-txeak 1992an bat egin zuten eta orduz geroztik, herriari abesten diote Gozategi izenarekin. Erromeriak bikoteak sortzeko indarra duela erakutsi die eta baita herri bat sortzeko indarra ere. Hogeita bosgarren urteurrena betetzera doaz, eta azken urteetan plazak adierazien eta eman dien maitasunari behar bezalako erantzuna eman nahi diote orain. Emanaldi berrian, herriari abesteaz gain, herriari hitz egongo dio Gozategik. Musika kontzertu akustiko honen estreinaldia martxoaren 18an izango da gaueko 22:30etan Orioko Kultur Etxean.



www.trikitixa.net · www.trikimailua.com

## HEMEN DA AZPEITIKO SAN JOSEtako TRIKITI JAIALDIA

Iritsi da urteroko zita garrantzitsuen eguna, aurtengoan gainera martxoaren 19an San Jose egunarekin izango da Azpeitiko Soreasu Antzokian. Jaialdian trikiti doinuak instrumentu ezberdinekin jota entzuteko aukera izango da eta hauek igoko dira oholza gainera:

- AITOR FURUNDARENA, GARIKOITZ MENDIZABAL eta IMANOL URKIZU
- UNTZA
- HAIZE-T
- LANDATARRAK
- AMETSAK MARGOTUZ
- JUAN MARI BELTRAN, ERREGE BELDA eta ANDOITZ ANTZIZAR
- KOLDO IPARRAGIRRE eta IGOR AROSTEGI



Esan bezala jaialdia martxoaren 19ean izango da arratsaldeko 17:30etan, Azpeitiko Soreasu antzokian. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera sarrerak salgai egongo dira bertako leihatilan.

Baina urtero bezala sarrerak aurretik erosteko aukera egongo da; Azpeitiko Ametsa, Pastorkua, eta Mendizabal jatetxeetan eta Azkoitiko Isidro erretegiaren. Egunean bertan ere, antzokiko leihatila arratsaldeko 16:00etan zabalduko da eta erreserbak arratsaldeko 16:30ak aurretik hartu beharko dira. Ordu hori baino lehen hartzen ez diren sarrerak salgai jarriko dira.

B	E	L	I	N	P	E	R	N	U	T	X	I	O	L
T	L	O	P	N	G	A	T	T	I	X	K	R	R	A
I	N	F	T	O	L	A	R	R	E	T	A	G	I	N
R	A	T	T	G	I	K	I	X	T	U	N	I	O	S
A	P	I	G	I	N	I	K	I	N	I	T	X	A	L
N	I	E	T	T	I	P	L	A	R	O	I	A	B	O
G	E	N	U	S	R	L	E	T	S	A	K	O	L	B
A	F	H	J	K	E	M	O	Q	P	U	O	F	S	A
T	P	E	R	N	V	K	S	E	A	T	P	Q	R	E
S	H	T	A	T	L	A	R	R	I	N	A	G	A	K
A	T	B	L	P	O	V	T	A	R	K	T	T	E	L
C	A	V	T	E	P	I	R	T	T	M	I	X	I	T
G	E	E	S	T	O	L	E	A	N	U	T	L	E	B
I	K	A	N	H	U	S	A	S	T	H	A	V	L	I
Z	E	R	O	S	E	T	T	E	E	O	S	A	L	O

## Letra zopa

Bakoitzak bere soinua ondo ezagutzen du, baina inguruan dauzkagun trikitixa marka edo modelo ezberdinak ezagutzen ote ditugu? Hona hemen 10 trikitixa marka edo modelo izkutatu!

SOLUZIOAK: ZERRO, POLVERNI, SOINU TXIKI, ZERO SETE, CASTAGNARI, LARINAGA, GABANE-LLI, ANTIKO, INPERNU eta BELTUNA

## 2015EKO BALANTZEA ETA 2016RAKO EGITASMOAK ONARTU DITU URTEKO BATZAR NAGUSIAK

Martxoaren 5ean, Adunan egindako Batzar Nagusiak, iazko balantzea egin eta 2016erako egitasmoak onartu ditu. Gauzatu diren proiektuen azalpena duzue jarraian, Euskal Herriko Trikitixa elkartearen lan ildo nagusienetan banatuta.

### DOKUMENTAZIOA:

- Dokumentazio zentroa osatzen eta aberasten jarraituko du Elkarteak, trikitixarekin lotura duen guztia gordez.
- Soinuaren liburutegia bildumako 12. alea argitaratuko du 2016ean Trikitixa Elkarteak. Iñaki Garmendia Lajari eskainitako liburu-diskoa Joxe Mari Iriondok idatziko du.
- Larrinaga soinu zaharren bilaketa baten ondoren, hauen jabeen baimenarekin modelo, itxura, adin... ezberdineko soinu txikien argazki liburuarekin gatz aurten, Marcelino Larrinaga zenaren esku abilei omen eginez.
- "Trikitixa eta generoa" gaiaren inguruan datu bilketa hasiko dugu aurten. Horretarako Elkartetik kanpoko talde baten laguntza izango dugu.

### TRANSMISIOA ETA IRAKASKUNTZA:

- INPERNUKO POZA JARDUNALDIAK. Soinua Jotzeko Tonalitate ezberdinak izan zituzten ardatz 2015ean izandako jardunaldiek. 2016ko jardunaldien gaia zehazteke dagoen arren, Donostian izango dira iraileko lehenengo astean.
- TRIKITI TOPAKETAK. 2015eko esperientzia ezin positiboagoaren ondoren, aurten ere trikiti topaketa burutzeko asmoa badago. Oraindik zehaztu gabe dago non egingo diren.
- ZENBAKI BIDEZKO PARTITURAK sortu eta [www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net)-en zintzilikatuko dira 2015ean hasitako lan ildoari jarraituz.
- TRIKITIXA EGUNA. Beasainen ospatuko da 2016ko Trikitixa Eguna Apirilaren 23an. Egun osoko ekitaldia izango da 11:00etan elkarturik gorputzak eskatzen duen arte.

## DEBAGOIENKO XXII. TRIKITIXA EGUNA

Apirilaren 16an izango da Debagoieneko XXII. Trikitixa eguna Bergaran. Hona hemen egun horretarako egitaraua zehazturik: goizeko 10:15etan ongi etorria inguratutakoei, 11.00etan solasaldi musikatu Aranzadi ikastolan, haurrentzat jolasak seminarioko patioan eta ondoren kalejira. Eguerdian bailarako eskolen emanaldia eskainiko da eta jarraian 14.30 herri bazkaria. Arratsaldeko 17.00etan trikitixa jaialdia ospatuko da herriko plazan eta gero triki-poteoa gorputzak aguantatzen duen arte. Egunari bukaera emateko Gozategi taldearen kontzertua izango da gaueko 23:00etan.



### KOMUNIKAZIOA, HEDAPENA ETA ZERBITZUAK:

- SAN JOSE JAIALDIA. Martxoaren 19an egingo da Azpeitiko Soreasu Antzokian. Xehetasun gehiago aurreneko orrialdean.
- GEURE KOLKOTIK 2016. Pieza berrien bildumako zazpigarren alea kaleratuko da aurten. Partaideak honakoak izango dira: ITSASO ELIZAGOIEN (NAFARROA), XABIER ABURRUZAGA (BIZKAIA), ANDER ZABALETA (ARABA), XABIER ETXANIZ (GIPUZKOA), PATRICK LARRALDE (IPARRALDEA). Aurreko aleetan bezalaxe, trikitixa eta perkusioa uztartuko dituzte bakoitzak hiruna pieza berri grabatuz.
- AUDIO PRODUKZIOAREN SALMENTA ELEKTRONIKOA. Elkarteak, orain arte sortutako audio produkzioa interneten zabaltzea erabaki du. Iaz plataforma digital ezberdinetan jarri genituen Geure Kolkotik guztiak entzungai eta salgai. Aurten ordea, Faborez sail osoa igoko du.

### ZUZENDARITZA

Zuzendaritza taldea honela geratuko da:

**Lehendakaria:** Agurtzane Elustondo

**Lehendakari ordea:** losu Arrizabalaga Izer

**Idazkariak:** Maider Jauregi eta Eneritz Gorrotxategi

**Diruzaina:** Aritz Alustiza

**Bokalak:** Andoitz Antzizar, Eneko Dorronsoro, Manex Torreal-dai, Añarbe Kalonje eta Itsaso Elizagoien.

Aipatutako egitasmoen gain, Elkarteak [www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net) eta [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com) webguneen, Alzaporruren eta facebook hormaren bidez zabalduko du bere berri, eta jakina trikitilari zein trikiti zaleei bere zerbitzua eskaintzeko prest izango da. Urte amaieran Durangoko Azokan ere parte hartuko du.

## ITSASO ELIZAGOIEN CARLOS NUÑEZ GAITERO EZAGUNAREKIN JIRAN

Ingeniaritza informatikoa ikasten ari den 20 urteko Etxalartarra da Itsaso Elizagoien. Txapelketak utzita, orain erromerietan ibiltzeaz gain Carlos Nuñez gaita jole ezagunarekin Europan barrena ibiltzeko aukera izan du. Azaroan asteburu bat Vigon pasa zuen Carlos Nuñez eta beste hainbat musikari ezagunekin, datorren urtean aterako den Carlos Saura zinema zuzendariaren "La Jota" filmaren grabazioan parte hartzen. Itsasok dionenez Carlos Nuñezekin jotzeko aukera izatea amets bat egi bihurtzea izan da, baina hori bai, bera nondik datorren ahaztu gabe! Lehenengo kontzertua Barañainen eskaini zuen abenduan, ondoren Miranda de Ebron eta orain martxoan Luxenburgoko eta Frantziako Tolosan egongo dira kontzertuak eskaintzen. Ezin jakin aukera honek arte iraungo duen baina dagoen bitartean ehuneko ehuneko aprobetxatuko duela seguru dago Itsaso.



## GARILAK 26: ADRENALINAREN ZAIN

Garilak 26, erromeri talde bizkaitarrak bere lehen diskoa "adrenalinaren zain" kaleratu du. Tendentzia rockeroa duen taldea da, eta diskoan hala erakutsi dute. Taldekideak Maria Lazkano (abeslaria), Iker Alvarez (gitarra), Eneko Benito (alboka) eta Josu Elorduy (Trikitixa) dira. Hainbat kolaborazio ere izan dituzte diskoan, hala nola Xabi Solano (Esnebeltza), Pello Reparaz (Vendetta), Urtzi Iza (Enkore Rock eta Empty Files), Txufo Wilson (Empty Files eta Smoke Ildols) eta Maria Rivero (Siroka taldea). Diskoak beraiek sortutako 6 abesti berri ditu eta hauek jendea aurkeztu asmoz, 40 minutu festibalean jo zuten otsailean eta aurkezpen kontzertuekin jarraituko dute aurrerantzean ere.



## LIBURUA: ZURIAK ETA BELTZAK JOTAKOAK

Liburu hau argitaratzearen arrazoia azken mendeko trikitiaren eta trikitilariaren irudien dokumentu grafikoa erabiltzaileen esku jartzea izan da. Dudarik gabe ez dira XX. mendeko jotzaile guztiak ageri, EHTEK artxiboan dauzkan argazkien arabera egingo da obra hau, eta artxibo horretan ez dira Elkarteak dokumentatuta dauzkagun jotzaile guztiak ageri irudietan. EHTEK asko eskertuko luke liburu honetan falta diren soinu-jotzaile edo pandero-joleen argazkiak eduki ezker, artxiboan gordeak izan daitezkeen eta protokolo zorrotz baten pean jasoko balitu, ez nahitaez liburu berri bat egiteko.

Irudiaren formatuari dagokionez, molde ezberdinetako argazkiak dira guztiak, hala nola bakarka edo taldean, kalean edo barruan, kalejiran edo oholtzan ... trikitia ezagutu izan den modu ezberdinak aurkezteko asmoz. Martxoan zehar jarriko da salgai ohiko tokietan.



## LIBURUA: CARLES BELDA: 24 Rumbes per diatònic

Carles Belda trikitilariak "24 Rumbes per Diatònic" rumbak trikitixaz jotzeko metodoa atera du. Liburu honetan solfeoeko partiturak, kantu bakoitzaren informazioa izateko testuak eta 2 CD aurki daitezke. CD-etan rumba klasikoak gitarra, perkusioa eta trikitixarekin grabatua ageri da. Liburuak emailez ([carlesbv@josoc.cat](mailto:carlesbv@josoc.cat)) eskatuta lortu daiteke 20 -tan. Proiektua borobiltzeko rumba diatonikoaren mapa sortu dute eta errezitaldiak eta tailerrak ere antolatuko dituzte.

## GEURE KOLKOTIK DISKOAK INTERNETEZ SALGAI

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Geure Kolkotik ataleko disko guztiak, 2010etik hasi eta 2015ekora arte, interneteko plataforma ezberdinetan salgai jarri ditu. Besteak beste 7 digital, Amazon MP3, Deezer, Emusic, Google Play, iTunes & Apple Music, Omnifone eta Spotify, plataformetan.

Abenduaren 1ean jarri zen salgai GK2010, eta hilero disko bat salgai jarriz maiatzaren 1ean jarriko da salgai GK2015. Asmoa ahalik eta jende gehienarengana iristea da, bai Euskal Herri mailan eta batez ere mundu mailan, trikitixa munduan zehar ezagutzera emateko.